

## 2012 ko Arlo eta Diziplina zientifikoaren arabera Espainiaren Unibertsitate I-UGR Ranking-aren hirugarren edizioa argitaratu da.

2012/06/13

Lehenago 'Ranking ISI' izenarekin ezaguna, **Arlo eta Diziplina zientifikoaren arabera Espainiaren Unibertsitate I-UGR Rankingak** Estatuko unibertsitate publiko eta pribatuaren klasifikazioa eskaintzen du, nazioarteko mailan bisibilitate eta eragin handiko aldizkarietan argitaratzen diren ikerketen oinarrituta.

Estatuko ikerketa sistema unibertsitarioak jakintza arlo desberdinetan dituen indarrak eta ahultasunak azaltzea du helburu orokorra.

**12 arlo eta 37 diziplina** zientifikoekin ranking-ak eskaintzen ditu, unibertsitateek zer espezialitatetan duten eragin handiena errazago jakin dezagun.

Informazio iturritzat **Thomson Reuters** enpresaren **datu-baseak** erabiltzen ditu, CNEAI edo ANECA ebaluaketa agentziek erabiltzen duten oinarritzko erreferentzia izateagatik.

Denbora-serie luzeak ezartzen ditu, 5 urteko denboraldia (**2007-2011**) eta hamar urteko denboraldia (**2002-2011**).

Unibertsitateak ordena daitezkeen eragina eta ekoizpena neurtzeko 6 indikadore bibliometrikoak bateratzen dituen **indizea** erabiltzen da, **IFQ<sup>2</sup>A-Index** izenekoa.

Ranking guztiak, bai arloaren arabera, bai diziplina zientifikoaren arabera, hurrengo atarian kontsulta daitezke:

<http://www.rankinguniversidades.es>

2012 urteko emaitzez gain aurreko edizioenak ere eskaintzen dira.

Gainera unibertsitate baten perfila kontsulta daiteke, edo unibertsitateen arteko konparaketak egin daitezke.



Ranking I-UGR